

HITZARGIAK – Elkar argitzen duten hizkuntzak

Euskal Hedabideen Behategia

INFORMAZIO OROKORRA

DATA: 2016-05-11

1	Izena	Euskal Hedabideen Behategia
2	Hizkuntza	Euskara
3	Lan-arloa (hezkuntza, komunikazioa, irakaskuntza, aisia, administrazioa...)	Komunikazioa, ikerketa
4	Kontakturako helbidea edo telefonoa	harremana@behategia.eus gsalces@behategia.eus
5	Sare sozialetako kontaktuak (Webgunea, Facebook, Twitter...)	Webgunea: www.behategia.eus

PRAKTIKA EGOKIAREN DESKRIBAPENA

1	Praktikaren azalpena	Euskal Hedabideen Behategia
2	Praktikaren azalpenaren laburpena	<p>Euskal Hedabideen Behategia unibertsitateen eta euskarazko hedabideen arteko elkarlana zentro duen ikerketarako eta hausnarketarako espazioa da.</p> <p>Euskarazko 50 komunikazio-proiektu baino gehiago biltzen dituen Hekimen elkarteak eta Euskal Herriko Unibertsitateak, Deustuko Unibertsitateak eta Mondragon Unibertsitateak sinatutako akordioari esker posible izan da ezagutzaren transferentzia eta berrikuntzaren sustapena xede dituen gunea martxan jartzea.</p> <p>Euskarazko hedabideei eta hauek bizi duten ekosistema sozial eta mediatikoei erreparatzen dien antena da Behategia. Alde batetik, komunikabideek hizkuntza normalizatzeko eta hiztunen komunitatea trinkotzeko egiten duten ekarpena nabarmendu nahi du. Horretarako, euskaraz diharduten hedabideen eragin kuantitatiboa eta kualitatiboa neurtzeko proposamen berriak lantzen ditu.</p> <p>Beste alde batetik, kontsumo mediatikoan gertatzen ari diren eta aurrerantzean ere gertatuko diren aldaketa sozioteknologikoen euskarazkoen sektoreari planteatzen dizkieten erronkak eta aukerak identifikatzea, eta horien aurrean alternatibak bilatzea du xede. Azkenik, adostasun berriak proposatu nahi ditu, hedabideak eraginkorragoak izan daitezen, eta jende gehiagorengana irits daitezen.</p>

3	Aurrekariak (Inplementazioa burutzeko motibazioa, identifikaturiko beharrak)	2012an sortu zenetik, Hekimen elkarteak ikerketaren eta berrikuntzaren aldeko apustua egin zuen. Eskema horren baitan, euskarazko hedabideen eta unibertsitateen arteko zubiak eraikitzea funtsezkoa zela oharturik, elkarlana gorpuztuko zuen egitura sortu ahal izateko beharrezko urratsak eman, eta Behategia eratzeko konpromisoa hartu zuten Hekimenek, EHUK, Deustuk eta Mondragonek
4	Helburuak	<ul style="list-style-type: none"> • Datutegi bat osatzea sektorearen errealitatea hobeto ezagutzeko • Audientziak neurtzeko proposamenak egitea, bereziki Interneteko jarioari begira • Politika publiko berriak ezartzeko gogoeta egitea, laguntzeko sektoreak tresna eraginkorrak izan ditzan bere garapenerako • Unibertsitateen eta enpresen arteko zubi lana egitea, sinergiak aprobetxatu eta bide berriak esploratzeko
5	Eragin esparru nagusia eta albokoak	Hedabideen eta unibertsitateen arteko zubi lana egiteko asmoarekin jaio zen Behategia, eta, modu orokorrago batean, hizkuntzaren normalizazio prozesuan eragile proaktibo izan nahi du
6	Erakunde laguntzaileak eta horien lan-arloak	<p>Hekimen Euskal Hedabideen Elkartearen ekimenez sortua, Euskal Herriko Unibertsitatearekin, Deustuko Unibertsitatearekin eta Mondragon Unibertsitatearekin sinatutako hitzarmenak jarri du Behategia martxan jartzeko markoa. Horrez gain, 5 ikerketa-talde dira, oraingoz, Behategiaren parte: EHUKo 3 (NOR, HEKA eta HGH), eta Deustuko (Euskal Gaien Institutua) eta Mondragoneko (HEZIKOM) bana.</p> <p>Hortaz, 3 unibertsitatek, 5 ikerketa-taldek eta 38 ikerlarik osatzen dute Behategia gaur egun. Halaber, Gipuzkoako Foru Aldundiak babesle gisa parte hartzen du ekimenean.</p>
7	Inplementazio-epea	2015ean zehar eman dira Behategia sortzeko urratsak, eta 2016an, partaideen arteko hitzarmena sinatuta, dagoeneko errealitatea da. Ez dauka inplementazio epe jakinik, denboran irauteko bokazioarekin jaio baita Behategia

INFORMAZIO GEHIGARRIA PRAKTIKA EGOKIEN FITXA

8	Hedapena (eragiten dien pertsona kopurua, barnekanpo hedapena...)	3 unibertsitatek, 5 ikerketa-taldek eta 38 ikerlarik osatzen dute Behategia, eta haren jardunak Hekimeneko partaide diren 50 hedabide baino gehiagori, eta, oro har, euskaraz diharduten komunikazio proiektu guztiei eragiten die
9	Inbertsioa (dirutan, denboran, pertsonetan, bestelako baliabideak...)	<p>Inbertsioari dagokionez, Gipuzkoako Foru Aldundia da Behategiaren babeslea, eta aurten 34.000 euroko inbertsioa egin du.</p> <p>Horrez gain, Euskal Herriko Unibertsitateko 3 ikerketa-taldek, Deustuko Unibertsitateko Euskal Gaien Institutuak eta Mondragon Unibertsitateko HEZIKOM taldeak ekarpen baliotsua egiten dute, Behategiaren ikerketa jarduerak garatzen dituztelarik.</p> <p>Azkenik, ikertzaile eta koordinatzaile diharduen langile bat kontratatua du Behategiak, jardunaldi osoan.</p>

10	Lortutako emaitzak	<p>Ekimen jaio berria da Behategia; hala eta guztiz ere, dagoeneko Euskal Hedabideen Urtekaria argitaratu du 2015ean, hainbat euskal unibertsitateko ikerlarien lanak bilduta. 2016an ere editatuko da Urtekaria, eta, iaz ez bezala, Europako beste hizkuntza gutxituetako komunikabideei buruz idatzitako artikuluen bilduma egingo du, eta galeserazko hedabideen egoerari buruzko artikulua espezifikoa bat ere izango du.</p> <p>Webgunea sortu du Behategiak, euskarazko hedabideen inguruan egindako lan akademikoen bilduma, sektorearen ezaugarrien inguruan bilaketak egiteko aukera emango duten mapak eta komunikabideen inguruko albiste interesgarriak bilduko dituena, besteak beste.</p> <p>Hekimen elkartearen partaideen inguruko datutegia sortu du Behategiak. Datuen sistematizazioa eta berauen ustiapen egokiak sektorearen egungo egoeraren eta etorkizuneko garapen bideen inguruko ekarpen baliotsua egin dezakeelakoan, Behategiko kide diren ikerlariak eta hedabideek beraiek datutegirako sarbidea izango dute.</p>
11	Dokumentazioa erreferentziako materiala	<p>http://www.berria.eus/albisteak/118575/euskal_hedabideen_behategia_sustatzeko_hitzarmena_sinatu_dute.htm</p>
12	Intereseko informazio gehigarriak	<p>Behategia Udako Euskal Unibertsitateko 2 udako ikastarotan presente egongo da 2016an, eta euskarazko hedabideen etorkizunari buruzko hainbat hausnarketa estrategiko abiarazteko lanean dihardu, sektore ezberdinetako partaideak eta ikuspuntu aniztasuna bilatuz</p>